



TFG 2018/19

GRALA prestatzeko, ikasleengai proposamenak egiteko jarraibideak

Gai proposamena GAUREn bidez egingo da, martxoaren 12tik 18ra.

	<p>1-GAUR en <i>Karrera Amaierako Proiektuak – Gradu Amaierako Lanak</i> atalean sartu eta <i>Proposamenak</i> eta <i>Berria</i> ataletan egin klik.</p>
	<p>2-<i>Proiektu/Lan Proposamenaren Datuak</i> orria irekiko da.</p> <p>Hurrengo taulan aipatzen den informazioarekin beteko dira eremuak.</p>

EREMUAREN IZENA GAUREN	JARRI BEHARREKO INFORMAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Titulua eta Titulazioa</u> 	Lanaren izenburua eta ikaslea ikasten ari den gradua aipatuko dira (<i>Gehienez 500 karaktere</i>).
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Azalpena</u> 	Proposamena zein sailetara zuzentzen den adieraziko da. Zer gai proposatzen den azalduko da eta graduarentzat duen garrantzia arrazoitu . Era berean zer/zeintzu ikasgairekin egon daitezkeen lotuta esango da (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egin beharreko lanak</u> 	Gaia lantzeko jarraituko den bidea zehaztuko da (estrategia, cronograma, etc.) eta gaiari lotutako oinarrizko bibliografiaren bost aipamen egingo dira (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Helburuak</u> 	Lanaren helburuak eta aurreikusi daitezkeen ondorioak aipatuko dira (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Orduak guztira</u> 	300
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Iraupena</u> 	1/6/2018-30/09/2019
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Hizkuntza</u> 	Euskara edo Gaztelera aukeratu. Ingelesean egiteko, galdetu Dekanotzan.
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Zuzendaria</u> 	<ul style="list-style-type: none"> • Atal hau soilik beteko dute Eskolako Araudian 4.2. artikulua bigarren paragrafoan jasotako baldintza betetzen dutenek (kolaborazio beka batekin lotuta prestatzen dutenek GRALa), gainontzekoek EZ BETE atal hau.

- *Teknikoki aukera dagoen arren, EZ IGO beste dokumenturik, aurretik aipatu dugun informazioarekin osatuko duzue proposamena.*

- *Ikasle bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu dezake.*

- *2018/19 ikasturtean ikasketei berrekiteko asmoa dutenek ezin dira, gaur egun, GAUREn sartu. Hortaz, gai proposamena Idazkaritzan aurkeztu beharko dute, taulan eskatzen den informazioa aipatuz, epe barruan eta Eskaera Orokor orri bati erantsita.*